

507/2013 EBAZPENA, APIRILAREN 5ekoa, GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEKO ZUZENDARI GERENTEARENA. HONEN BIDEZ, DOKUMENTAZIO KLINIKOKO GAINBEGIRALE LANPOSTU BAT IZENDAPEN ASKEAREN BIDEZ BETETZEKO DEI EGITEN DA.

RESOLUCION 507/2013, DE 5 DE ABRIL, DEL DIRECTOR GERENTE DEL HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES, POR LA QUE SE PUBLICA LA CONVOCATORIA PARA LA PROVISION MEDIANTE EL SISTEMA DE LIBRE DESIGNACIÓN DE UN PUESTO DE SUPERVISORA DE DOCUMENTACION CLINICA.

Lanpostu funtzionala: Gainbegirale

Puesto funcional: Supervisor/a.

Kokapena: Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea.
Dokumentazio Klinikoa

Localización: Hospital Universitario Cruces.
Documentación clínica.

Eginkizunak:

- Dagokion arloko kudeaketa-helburuak proposatzea, neurriak eta baliabideak zehaztuta.
- Unitateko proiektuen planifikazioa, antolaketa eta zuzendaritza garatzea, eta neurriak hartzea produktibitatea nahiz paziente, erabiltzaile eta profesionalen gogobetetzea handitzeko.
- Teknika, sistema eta lan-prozesu berrien antolaketa erraztea eta bultzatzea.
- Langileen garapen profesionala sustatzea, bereziki, beraien lanpostuekin lotutako Erizaintzako trebetasun aurreratuetan.

Funciones:

- Proponer los objetivos de gestión correspondientes a su ámbito de actuación, determinando acciones y recursos necesarios.
- Desarrollar la planificación, organización y dirección de los proyectos desarrollados en la unidad, e implantar acciones para la mejora de la productividad y la satisfacción de pacientes, usuarios y profesionales.
- Facilitar e impulsar la organización de nuevas técnicas, sistemas y procesos de trabajo.
- Propiciar el desarrollo profesional del personal de su unidad, especialmente su formación en competencias avanzadas de Enfermería relacionadas con el puesto

Betekizunak: (agirien bidez egiaztatu beharko dira)

- Osakidetza edozein zerbitzu-erakundetan estatutario, funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoa, Estatuko Osasun Sistemaren erakunde sanitarioetan estatutario finkoa edo Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoa izatea eta B1 lan-maila edukitzea.
- B1 lanbide-taldeari dagokion titulazioaren jabe izatea (Osasun-diplomaduna).
- Gutxienez, 3 urteko lan-esperientzia B1 mailako lanbide-taldean.

Requisitos: (se deben acreditar documentalmente)

- Hallarse en situación de servicio activo o situación asimilada, con plaza en propiedad como estatutario, funcionario o laboral fijo, en cualquier centro de Osakidetza, o ser personal estatutario fijo de las Instituciones Sanitarias del Sistema Nacional de Salud, o personal funcionario o laboral fijo de la Administración General de la Comunidad Autónoma Vasca y pertenecer al grupo profesional B1.
- Hallarse en posesión de Titulación perteneciente al grupo profesional B1 (Diplomados sanitarios).
- Experiencia mínima de 3 años en el grupo B1.

Baloratuko da:

- Esperientzia edota prestakuntza Erizaintzako Unitateen Kudeaketan.
- Esperientzia edota prestakuntza Antolakuntzan eta taldeen kudeaketan.
- Esperientzia Artxibo eta Dokumentazio Klinikoetako Unitateen planifikazioan eta antolakuntzan
- Esperientzia edota prestakuntza E-Osabide Artxiboetan eta kodifikazioan
- Informatika ezagutzak: Word, Excel, Access, Power Point.
- Euskaraz jakitea, 67/2003 Dekretuak ezarritako irizpideen arabera.
- Lanpostu honetan aritzeko balioa eranstean duten eta interesgarritzat jotzen diren merezimendu guztiak aurkez daitezke.

Se valorará:

- Experiencia y/o formación en Gestión de Unidades de Enfermería.
- Experiencia y/o formación en organización y gestión de equipos.
- Experiencia en planificación y organización en unidades de archivo y documentación clínica.
- Experiencia y/o formación en codificación y en E-Osabide Archivos
- Conocimientos de Ofimática: Word, Excel, Access, Power Point.
- Nivel de conocimiento de euskera en conformidad con los criterios establecidos en el Decreto 67/2003.
- Se podrán aportar cuantos méritos se consideren de interés y añadan valor al desempeño de este puesto de trabajo.

Eskabideak non eta noiz aurkeztu:

Interesdunek eskabideko datu pertsonal guztiak bete eta *Curriculum vitae*ekin (agiriak barne) batera, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Pertsonal Zuzendaritzara bidali beharko dute (Gurutzetako Plaza z.g. 48903 Barakaldo). Eskabideak aurkezteko epea 2013ko apirilaren 25ean, eguerdiko 14:00etan amaituko da.

Batzorde ebaluatzailea:

Deialdi honetarako batzorde bat eratuko da, honako hauek osatuta: Erizaintzako zuzendaria, Erizaintzako zuzendariordea, Pertsonal-zuzendari/ordea edo Pertsonal-zuzendaritzako teknikari bat, idazkaria izango dena.

Hautabidea:

Epaimahaiak Curriculum vitae aplikazioan jasotako eta balioetsitako merezimenduak baita interesdunek aurkeztutako agiriak ere baloratuko ditu, eta egoki iritziz gero, elkarriketa batera deitu ahal izango die izangaiei. Balorazioa amaituta, proposamen bat luzatuko du, dagokion izendapena gauzatzeko. Epaimahaiak lanpostua bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek ez badituzte betetzen lanposturako behar diren baldintzak.

Izendapen hori modu askean ezeztatu daiteke edozein unetan.

Ebazpenaren aurkako errekurtsoak:

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetzako Zuzendari Nagusiari, deialdia argitaratzen den hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Presentación de solicitudes y plazo:

Los/as interesados/as deberán dirigir su solicitud cumplimentada con todos sus datos personales y acompañada de "*Curriculum Vitae*" (documentado) a la Dirección de Personal del Hospital Universitario Cruces (Plaza de Cruces, s/n, 48903 Barakaldo). El plazo para presentar solicitudes finaliza a las 14:00 horas del 25 de abril de 2013.

Comité evaluador:

Se constituirá un Comité integrado por la Directora de Enfermería, Subdirectora de Enfermería, Directora/Subdirector de Personal, a o un Técnico de la Dirección de Personal, que actuará como secretario.

Procedimiento de selección

El Comité valorará los méritos validados contenidos en la aplicación *Curriculum vitae*, así como la documentación aportada por los interesados y podrá acordar la realización de una entrevista personal con aquellos candidatos que lo estime oportuno. Efectuada la valoración y a la vista de la misma se elevará propuesta a fin de formalizar el oportuno nombramiento. El Comité podrá declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

Dicho nombramiento podrá revocarse libremente en cualquier momento.

Recursos contra la presente resolución

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza-SVS, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

Gurutzeta-Barakaldon, 2013ko apirilaren 5ean

En Cruces-Barakaldo, a 5 de abril de 2013

**Osakidetza**

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES
PERTSONAL ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAL

Iz./Fdo: MAITANE ARRIZABALAGA CALZACORTA
PERTSONAL ZUZENDARIA / DIRECTORA DE PERSONAL

Zuzendari Gerenteak uztailaren 16ko 4939/2009 Ebazpenaren bidez emandako eskuordetzaz baliaturik

Por delegación, mediante Resolución 4939/2009, de 16 de julio, del Director Gerente

IRAGARKI HAU ZENTRO GUZTIETAKO IRAGARKI-TAULETAN JARRIKO DA 2013ko APIRILAREN 8an
PARA SU PUBLICACIÓN EN LOS TABLONES DE ANUNCIOS DE TODOS LOS CENTROS EL DIA 8 DE ABRIL DE 2013